


Joseba Sarrionandia

Joseba Sarrionandia Uribelarrea 1958ko apirilaren 13an lurretan (Bizkaia) jaiotako euskal idazlea da. Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean eta euskara irakasle lan egin zuen. Bergarako UNEDen fonetika irakasle izan zen eta Udako Euskal Unibertsitatean ere parte hartu zuen. Bere lehen lanak *Anaitasuna*, *Ibaizabal*, *Zeruko Argia*, *Jakin* eta *Oh! Euzkadi* aldizkarietan argitaratu zituen. Euskaltzain urgazlea, *Ibaizabal* aldizkariaren sortzaileetako bat ere izan zen. Sasoi hartan, Pott bandaren kideetako bat izan zen, Bernardo Atxaga, Manu Ertzilla, Ruper Ordorika, Jon Juaristi, Joxemari Iturralde eta beste hainbat idazlerekin batera. 1980an kartzelaratu egin zuten etakidea izateagatik.



Epaitu eta hogeita zortzi urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. Harrezkero, preso izatearen errealitatea bere obran hainbat aldiz ukitu du. Urte berean hiru sari irabazi zituen, *Maggie indazu kamamila* eta *Enperadore eroa* ipuinekin, eta *Izuen gordelekuetan* barrena poema bildumarekin.

1985eko uztailaren 7an, San Fermin egunean, Martuteneko espetxetik ihes egitea lortu zuen bertan izan zen kontzertua amaitu ondoren, Iñaki Pikabea presoarekin batera, bozgorailu batean ostenduta. Gertaera haren omenez Kortatu taldeak *Sarri, Sarri* kanta ospetsua egin zuen. Ordutik, iheslari bizi da (dagoeneko, Espainiako legeen arabera, haren delituek preskribatu badute ere) eta, hain zuzen, iheslari erbesteratuarena izan da haren obraren beste gai nagusia, *Lagun Izoztua* (2001) eleberrian, esate baterako, ikus daitekeen moduan. Klandestinitatean bizi izan arren, liburuak argitaratzen jarraitu du eta hainbat musikarirekin elkarlanean aritu da: Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Fermin Muguruza eta beste musikari askori helarazi dizkie bere poemak gutunen bidez. Esan Ozenki eta Txalaparta diskoetxeek elkarlanean *Hau da ene ondasun guzia* disko-liburua argitaratu zuten, idazlearen poema musikatuekin.

2011ko urrian Eusko Jaurlaritzak euskarazko saiakeraren Euskadi Literatura Saria eman zion *Moroak gara behelaino artean?* liburuari esker, baina sariari dagokion dirua atxiki egingo zuela jakinarazi zuen justiziaren aurrean bere egoera erregularizatu artean. Espainiako Auzitegi Nazionalaren Fiskaltzak auzirik ez zuela esan zuenean, diru saria eman zioten.